

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### **Elosu herritik datozen hondakin-urak isurtzeko baimenaren berrikuspena, Legutioko udal-mugartean**

Espediente-zenbakia: RAV-A-2021-0009.

Eskatzailea: Urbide – Arabako Ur Partzuergoa.

Urbide - Arabako Ur Partzuergoak Legutioko udal-mugartean dagoen Elosu herritik datozen hondakin-urak isurtzeko baimena berrikusteko eskatu du, dauden arazketa-sistemen bidezko tratamendua jaso ondoren. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hilabeteko (1) epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Gamarrako Atea kalea 1. A - 11. solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 29a

*Isurketen arduraduna*

**AITOR BELDARRAIN URIONDO**